EB GURE EGUNEROK O BIZITZAN

EB-RI ATXIKITZEAK GURE HERRIALDEAK ETA GURE EGUNEROKO BIZITZA ALDATU DITU

Barne-merkatua, muga irekiak eta **euroa** moneta erkide gisa sartzea dira Europar Batasunaren erdiespen azpimarragarrienetako batzuk.
EBren erabakiek bizi garen mundua baldintzatzen dute, eremu anitzetan, guk pentsa baino askoz gehiago.
Ikasi gehiago adibide zehatzak irakurriz.

KONTSUMITZAILEAREN BABESA

EB-KO IBILTARITZA-KOSTUEN AMAIERA

© Mimagephotos

Ibiltaritza-kostuak 2017ko ekainaren 15ean desagertu ziren. EB barruan bidaiatzen duten Europako Esparru Ekonomikoko egoiliarrek beren herrialdeetan ordaintzen duten prezio berbera ordaintzen dute deien, testu-mezuen eta Internet mugikorraren truke.

https://what-europe-does-for-me.eu/es/portal/2/D14

KONTSUMITZAILEAREN BABESA

BI URTEKO BERMEA GAILU ELEKTRONIKOET ARAKO

© Unión Europea, 2017

Batasuneko zuzenbidearen arabera, fabrikatzaileek bi urteko legezko bermea eskaini behar dute aparatu elektronikoetarako, hala nola telefono adimendun, inprimagailu, ordenagailu eramangarri, xurgagailu eta kafegailuetarako.

https://what-europe-does-for-me.eu/es/portal/2/X02_12301

MERKATU BAKARRA ETA KONTSUMITZAILEAREN BABESA

PRODUKTUEN SEGURTASUN-ARAUAK

Europar Batasunaren barruan saldutako produktuek segurtasunari, osasunari eta ingurumenaren babesari buruzko EBko arauak bete behar dituzte. CE marka da arau horiekin bat datozela adierazten duen ziurtapen-marka.

https://ec.europa.eu/growth/single-market/ce-marking_es

© Comunidades Europeas, 1997

KONTSUMITZAILEAREN BABESA

PRODUKTUEN ETIKETEI BURUZKO INFORMAZIOA

Herritarrek kontsumitzen dituzten produktuei buruzko informazio zuzena eta osoa edukitzea nahi du EBk. Horregatik, elikagaiek eta produktu kosmetikoek informazio jakin bat jaso behar dute etiketetan, adibidez, osagaiak eta fabrikatzailearen izena.

https://ec.europa.eu/info/law/law-topic/consumers/consumer-contract-law/consumer-rights-directive_es

ELIKADURA-LEGERIA OROKORRARI BURUZKO ERREGELAMENDUA

ELIKADURA-SEGURTASUNA EB-N

Elikadura-legeria orokorrari buruzko erregelamenduaren (2002) helburua da EBn saldutako elikagai guztiak kontsumitzeko egokiak direla bermatzea. Helburu, betebehar eta baldintza orokorrak ezartzen ditu, elikagaien eta pentsuen ekoizpenaren eta banaketaren etapa guztiak («baserritik mahairaino») barne hartzen dituztenak.

ec.europa.eu/food/safety/general_food_law_en

LAN-DENBORARI BURUZKO EB-REN ZUZENTARAUA

GUTXIENEZ LAU ASTEKO OPOR ORDAINDUAK URTEAN

EBko lan-denborari buruzko zuzentarauak, zeina hasiera batean 1993an onartu baitzen, «urtean gutxienez lau asteko oporraldi ordaindua» izateko eskubidea ematen die langileei. Sektore edo estatu kide bakoitzak egun-kopurua handitu dezake, baina EBko gutxienekoa hogei egun dira.

https://ec.europa.eu/social/main.jsp?catId=706&langId=en&intPageId=205

EUROPAKO ITUN BERDEA

ERABILERA BAKARREKO PLASTIKOEN DEBEKUA

© Unión Europea 2019

EBk onartutako lege berri batek erabilera bakarreko plastikozko artikuluak debekatzen ditu, adibidez, platerak, mahai-tresnak, lastoak eta erabili eta botatzeko kotoi-txotxak. Debekua 2021ean sartuko da indarrean.

https://what-europe-does-for-me.eu/es/portal/2/X01_31001

EUROPAKO ITUN BERDEA – ENERGIAREN BATASUNA

GUTXIENEZ EB-KO ENERGIA-KONBINAZIOAREN % 32 ENERGIA BERRIZTAGARRIAK IZANGO DIRA 2030EAN

© Unión Europea, 2017

Erregai fosiletatik energia garbiagoranzko trantsizioa errazteko eta EBk Parisko Akordioan hartutako konpromisoak betetzeko asmoz, Batasunak betekizun hau ezarri du: gutxienez EBko energia-konbinazioko energia-iturrien % 32 berriztagarriak izango dira 2030ean. Ehuneko hori estatu kide bakoitzean aldatzen da, herrialde bakoitzaren egoeraren arabera.

https://what-europe-does-for-me.eu/es/portal/2/X03_02901

EB GURE EGUNEROK O BIZITZAN

EBko legeriaren adibide zehatzagoak nahi badituzu Europak nigatik egiten duena web-orrian aurki ditzakezu.

Aurkezpen hau «Europa eskolan: Europar Batasunari buruzko partaidetzazko klaseak» hezkuntza-tresnaren zatia da.
© Parlamento Europeo 2020